

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL

ÉPREUVE D'ENSEIGNEMENT DE SPÉCIALITÉ

SESSION 2024

LANGUES, LITTÉRATURES ET CULTURES ÉTRANGÈRES ET RÉGIONALES BASQUE

Durée de l'épreuve : **3 heures 30**

*L'usage du dictionnaire unilingue non encyclopédique est autorisé.
La calculatrice n'est pas autorisée.*

Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 9 pages numérotées de 1/9 à 9/9.

**Le candidat traite au choix le sujet 1 ou le sujet 2.
Il précisera sur la copie le numéro du sujet choisi.**

Répartition des points

1^{ère} partie : Synthèse	16 points
2^{ème} partie : Traduction ou transposition	4 points

SUJET 1

Thématique: «Engagement et développement durable»

Axe d'étude: «La recherche de l'équilibre»

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Dokumentuetan oinarrituz, azter ezazu zeintzuk diren lurraren kudeaketari dagozkion arazoak.
2. Nola da islatua euskaldunek lurrarekiko duten lotura?
3. Zeintzuk dira jendarteak ekartzen dituen erantzunak garapen iraunkorrari begira ?

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du **Document 1**, depuis la ligne 1 "*Mundua ez da...*" jusqu'à la ligne 5 "...mugetara laburtu."

"Mundua ez da eskuetan daukaguna, ez da gure etxebizitza, gure ondasunak, gure diruak. Mundua geu garena da. Biztanle guztiak barruan sartuta, jakina. Mundua bat da. Ez dauzkagu bi mundu, eta ongizatea biztanle guztiengana heltzen ez den bitartean mundua gaizki egongo da. Mugak gizakion asmakizunak dira, gure interesak hobeto babesteko sortu genituenak. Gure interesa mundua bera bada, ezin dugu begirada mugetara laburtu."

Document 1

GURE MUNDUAREN LEHEN IRAULTZA

Mundua ez da eskuetan daukaguna, ez da gure etxebizitza, gure ondasunak, gure diruak. Mundua geu garena da. Biztanle guztiak barruan sartuta, jakina. Mundua bat da. Ez dauzkagu bi mundu, eta ongizatea biztanle guztiengana heltzen ez den bitartean mundua gaizki egongo da. Mugak gizakion asmakizunak dira, gure interesak hobeto babesteko sortu genituenak. Gure interesa mundua bera bada, ezin dugu begirada mugetara laburtu.

5

Mundua bakarra da, eta leku batean soberan dagoena bestean faltako da. Inoiz baino hobeto dakigu munduak nola funtzionatzen duen. Guk hemen neurritz gain xahutzen dugun dirua munduaren beste aldean faltako da. Gu ere munduak daukan desorekaren eragile gara. Munduaren luze-zabalean gosea gero eta handiagoa da, injustiziak gero eta latzagoak; ez da izango horri buruzko informaziorik ez daukagulako.

10

Bat garen kontzientziarekin bakarrik ulertuko dugu gure arduraren neurria. Jakinduria horrekin bizi nahi izatea munduaren alde jartzea da. Kontzientzia horri uko egitea munduaren aurka joatea da, gure zorigaitzaren bila.

ARISTI Pako, *Note book*, 2005, 27. orrialdea.

Document 2

GAZTAIN XILOA

Gaztain xiloa izena duzu... Garazi, Baigorri edo Xuberoko baserri ttipixka bat zinen... Zinela diot, ezen orain, ez baizira. Ez zira gehiago deus...Izaite ekonomikorik ez duzunaz gero... EZ ZIRA! ... eta kitto!

5

Alta, mendez mende sortu, hazi eta biziara ditutzu familiak: zortzi, hamar hurrekoak... Mendiari kontra atera zira beti: behi, zerri eta ardi kotsia...egiten zen hura kasik dena garbi, eta ez zen despendiorik behar! Uros bizi izanagatik, xuhurki itzulikatu behar, eta laneko orenak ez kondatu...

10

Bainan, atzo hein batean itzulikatzen zena egun kasik ezin da; Gaztain xiloko eskualde guzia, zonbait urte hotan jada husten ari da, eta, desertuak desertua dakarrela. Gaztek ere bizi nahi dute, eta bizia ez da lanean mugatzen...

BERHOKOIRIGOIN Mixel, *Maiatz 6. Garazi*, 1984/04
(Egokitua)

Document 3

EHZ festibalak 15.000 euro eman dizkio lurraren defentsan ari den Lurzaindiari.

1996an sortu zenetik, EHZ festibalaren helburuetako bat izan da balore komunak partekatzen dituzten elkarte eta mugimendu sozialak sostengatzea. Horretarako hainbat modutan egiten dutela azpimarratu dute: "Euskal Herriko borrokak ezagutaraziz, berdintasunean, euskal kulturen, ekologian, klase sozial prekarizatuen defentsan oinarritutako jendartearen praktikan ezarritik, edota elkarteak zuzenean ekonomikoki lagunduz".

Eta hala, aurten ere festibalaren etekinen zati bat elkarte bati eman diote: Lurzaindiari, "Arbonako Berroetako okupazioa, Kanboko Marieniako lurrak laborantzarako izaten segi dezaten eginiko borroka eta egunero-egunero, hainbat laborarik eta militanteek egiten duten itzalpeko lanagatik".

EHZko kideek azpimarratu dute Lurzaindiaren lanaren bitartez ahalbidetu dela hainbat laborantza lur espekulaziotik babestea, laborariei birbanatuz. Eta Lurzaindiaren ekintzetatik haratago, defendatzen duten balore bat nabarmendu nahi izan dute: lurra guztiona da. "Egun, Euskal Herrian eta kanpoan ere, laborantza lurra merkatu logika kapitalistaren arabera saltzen da eta aldiz, Lurzaindiaren lanak aurkako logika segitzen du, laborantza lurrak eskaintza eta eskaeraren logiketatik atera, eta manera kolektiboan kudeatu, hazten gaituen lurrak bere funtzioa gal ez dezan, interes orokorrak interes pribatuaren gainetik jarritik".

ARGIA aldizkaria, 2022ko azaroaren 03a



Bakantzak euskoz, turismo parte hartzaile batentzat! - Eusko (euskalmoneta.org)

SUJET 2

Thématique : « Expression de l'amour »

Axe d'étude : « L'expression du sentiment amoureux »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigerez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Erakuts ezazu zertan amodioa poztasunaren eta sufrimenduaren iturri izan daitekeen.
2. Amodioaren sentimenduaren adierazteko unean, zertan dokumentuek gizonen eta emazteen arteko desoreka agerrarazten dute.

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du **Document 2** depuis la ligne 27 "*Gure euskal kantuetan...*" jusqu'à la ligne 33 "*...ezkontzaren haiduru.*" :

"Gure euskal kantuetan, amoresek elgarren artean maiz badituzte gora-beherak: hotz-aldiak eta bero-aldiak aldizkatzen zaizte; sendimentu goxoenen artetik, gazteak aise agertzen dira idurikortsu; ez fida maitearen ele ederreri; ez sinetsi nahi, baina halere kasu egiten haren kontra entzun erran-merraneri; hortik hasarreak eta gero berriz baketzeak: jos eta urra, urra eta jos.

Ez da harritzekorik: gure kantu xaharrak sortu ziren denboretan, gizon-gaiak eta emazte-gaiak luzaz egoiten ziren ezkontzaren haiduru."

Document 1

Andereño bat ikhusi nuen.

Andereño bat ikhusi nuen igande goizño batez
Bista berian agradatu nintzan haren begiez;
Ez dut uste baduela parerik eztitasunez :
Ene bihotza tristerik dago harekin izan beharrez.

- 5 — Anhitz maite baduzula fama hedatu zauzu;
Egun guziez maite berri bat egiten omen duzu
Horiek hola balin badira, nor fidaturen zauzu ?
Khambiatu behar duzu ni nahi balin banuzu.
- 10 — Baduzuia dudarik zu enetuz geroztik,
Nahi ere banukeela zutaz bertze maiterik?
Ez dut uste balaitekeela mundu huntan gizonik
Kontent bizi laitekenik zu kitatuz geroztik.
- 15 — Mihian dutzun elhe ederrak bihotzian bazintu
Menturaz zure maithatzia erresoli niokezu;
Bainan gero desplazerrik eman gogo baduzu,
Othoitzen zaitut hemen berian lurrez estal nezazu

Kantu herrikoia (anonimoa), “Andereño bat ikhusi nuen”, *Chants Populaires du Pays Basque*, Jean Dominique Salaberry, 1870.

Amodiozko kantuak Lapurdin, Baxe Nabarren eta Ziberoan

Aspaldiko errana da, berenaz kantua bihotzetik jalgitzen dela eta bihotzetara hedatzen. Izan ere, kantu gehienak amodiozkoak dira, maitasunez gorets dezaten Jaungoikoa, aberria, itsasoa, lurra, etxea, ala jendeen arteko atxikimendua.

5 Baina egun, hemen, jendeen artekoa baizik ez dugu aipatuko, gizon-emazteen artekoa bakarrik, ezkontzarako bidetakoa; ezen, gure euskal kantu herrikoietan ezin aurki ditake Meleagro edo Sapphoren¹ oihartzunik. [...]

Literatura-moduez [...] erranen dugu:

- zenbait kantu ipuin itxuran emanak dira;
- bertze asko bakar-hizketa moduan, alegia norbait bere buruaz bere buruari mintzo:
- 10 - batzuetan maitalea bere maiteari mintzatzen zaio, hunen erantzunik gabe;
- gehienetan elgar-hizketak dira gizon gaztearen eta neskatxaren artean, bakotxa bertzearen zinezko amodioaz segurtatu beharrez.

15 Bistan da maitaleen egoerak, sendimenduak eta erranak noiz nolakoak direla eta kantu batetik bertzetara arras alda ditazkela. Argitasun larri hoik eman ondoan, xeheki ikertuko dugu gure kantuen arabera zer den amodioa, nun pizten den, zerk hazten, nola mintzatzen, zerk trabatzen, zerk hausten, nola ezkontzarat heltzen [...]

Bitxi bada ere, euskal kantuetan ez dute neskek aipatzen mutikoaren itxurarik, hiru kantoretan soilki haren «ile horia»! Gizon gaztek aldiz maiz aipu dute maitearen kanpoko kanorea: goersten haren begiak, begitarte, ezpainak, esku xuriak, boza, eztitasuna.

20 Bertzerik ez [...]

Euskaldun bertsolariek nahiago izan dute erran bakarrik anderez pollitak, ederrak, xarmagarriak, maitagarriak, xuri-gorriak direla, sinbolo zenbait eratzikiz: hegaztin, argizari eta lore.

Hegaztinetan aipatuenak dira: usoa, urzapala, arroket, eperra, ainara, errexinoleta;

25 Loretan: lilia, arrosa, julufria;

Zeruko argizarietan: izarra, iguzkia, ilargia [...]

Gure euskal kantuetan, amoresek elgarren artean maiz badituzte gora-beherak: hotz-aldiak eta bero-aldiak aldizkatzen zaizte²; sendimentu goxoenen artetik, gazteak aise agertzen dira idurikortsu; ez fida maitearen ele ederreri; ez sinetsi nahi, baina halere kasu egiten haren kontra entzun erran-merraneri; hortik hasarreak eta gero berriz baketzeak: jos

30 eta urra, urra eta jos.

Ez da harritzekorik: gure kantu xaharrak sortu ziren denboretan, gizon-gaiak eta emazte-gaiak luzaz egoiten ziren ezkontzaren haiduru.

Piarres Lafitte, *Amodiozko kantuak Lapurdin, Baxe Nabarren eta Ziberoan*, 1934-1967.
(moldatua)

¹ Meleagro eta Sappho : lehena greziar mitologiako heroia eta bigarrena greziar olerkaria, biak homosexualitatearen figurak izan daitezke

² Zaizte : zaizkie

Document 3



Edvard Munch, *Bereizketa*, 1896, (Munch museoa, Oslo).